

# Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

## Bombita Rodríguez, Sparteent argentinarra

LAGUNAK FACEBOOKEN jarri duen bideoaren kalitatearen gatik, 1960ko edo 1970eko hamarkadakoa dela esango luke edozeinek; musikaren estiloak eta kantatzen ari den tipoaren itxurak ere –ile kalparra, bibote sarria– garai haietara daramate irudimena ia ohar-kabea. Baina zerbaitek txispa saltarazten du buruan, ez baita ohikoa duela 50 urte inguruko ye-ye estiloko kantetan “*con el puño en alto vamos a vencer, con el pie piso la cabeza de un burgués*” entzutea. Ezta abesti baten titulua *Una oligarca de mierda más* izatea ere. Gogoratu: ustez 1960ko hamarkadan gaude eta punka ez da existitzen. Artistak Bombita Rodríguez du izena eta, noski, ez da ye-ye garaikoa, oraintsukoa baizik. Wikipediak esanda jakin dugu Argentinako Canal 7 telebistan agertu zela aurrenekoz 2008an, Diego Capusotok eta Pedro Saboridok sortuta.

Baina musikari apokrifo on bat ez da ezer biografia faltsurik gabe –galdetu bestela The Sparteents talde euskaldunari– eta Rodríguezek ere badu berea: pop kantaria izateaz gain montoneroa da, doktrina peronistaren eta marxistaren zabaltzaile sutsua; eta 70eko hamarkadan arrakasta itzela izan ondoren alde egin behar izan zuen Argentinatik; Kuban bizi da egun,



deserriratu. Kontuak brometakoa dirudi, baina argi: pop musika xaloa eta ezker muturreko politika elementu antagonikoak baitira eta biak uztartzeak bonba, barka, “bombita” semiotikoa sortu du Argentinan, baita atzetik eztabaida dezente eta kritika ez gutxi ere. María Verónica Elizondok *452ºF* literatura aldizkariko iazko artikulua batean azaldu zuen moduan, Bombita Rodríguezek 60-70etako kultura nagusia legitimatzen baitu, “baina bestetik, irauli egiten du, errepresentazioen kodetze maila nabarmentzean”. Ondorioa: arteak zirrikituak aurkitzen dituela interes zapaltzaileen sarea desegiteko. Eta gainera –gehitzen dugu guk–, umorea erabiliz. ■

# ZIO

● ZIENTZIA  
● IRAKURLE  
● ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure  
artean  
euskaraz

Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

BFA  
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia  
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA  
BIZIA